

BALEIKE

218. ZENBAKIA. EURO BAT
2013ko OTSAILA

www.baleike.com

**Angula galzorian al dago?
Zer dakigu angulaz?
Zer diote zientzialariek?
Eta arrantzaleek?**

ANGULARI ERRADIOGRAFIA

ELKARRIZKETA: JOSE ANTONIO LETAMENDIA

BALEIKE 218

4

baleike +

ANGULA GALZORIAN?

AZALA G. Zabaleta



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustin Zubimendi eta

Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

azubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

16

elkarrizketa

“LAN ERREFORMA
HONEK ESKUBIDERIK
GABE UTZI DITU
LANGILEAK”

23

erreportajea
INPERNUPEKO
JOALDUNAK:
HERRI JAIEN JOARE

29

agenda

OTSAILA-MARTXOA

30

bertso xorta

OIKIAKO
INAUTERIAK

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udalak




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



gizarte

kutxa

The background of the entire page is a photograph of several eels swimming in clear, light blue water. The eels are elongated, slender fish with dark, mottled patterns on their sides and heads. They are positioned at various angles, some horizontally and others slightly curved, creating a sense of movement.

ANGULA GALZORIAN?

Ozta-ozta hazbete luze den zizare koloregabeak zenbat pasadizo, uste eta eztabaidarako ematen duen. Platerean imajinatzen ditugu, baina ezer gutxi dakigu angula liluragarriaz.

TESTUA: GORKA ZABALETA



Ez dago angula bezain arrain mediatikorik. Itsasoetako Messi da. “Zerbait berezia du. Angularekin zerikusia duen edozein berri amu paregabea da komunikabideentzat”. Esti Diaz eta Aizkorri Aranburu ez dira marketin adituak. Azti-Tecnaliako biologoak dira. Angula ikertu eta espeziea ugaltzeko neurriak proposatu eta kudeatzen dituzte. Bazekiten Urolako bi kilo angula errekan gora askatzeko ekimenak kazetari andana erakarriko zuela. “Beti gertatzen da angularekin. Orian egin genuenean ere eromena izan zen. Elkarrizketak bata bestearen atzetik”. Gabonetan edo San Sebastianen bueltan, albiste-gietako ohiko irudia da, arrandegietan angulak 500, 600 edo mila euroan. Gutxi batzuen eskura dagoen luxuzko produktua. Futboleko izarren distira du angulak. Baina, komunikabideetan saltzen zaigun irudiaz aparte, zer dakigu animaliaz? Galzorian al dago? Zergatik? Zer neurri proposatu dira? Zer diote angulazaleek? Urolako bi kilo angula ezagunenen distirarekin itsutu gabe, erantzunak bilatzen saiatu gara.

Animalia konplexua

Hasteko, angulaz baino aingiraz hitz egin beharko genuke, angulak aingira bihurtzen baitira heldutasunean. Gaur egun zientzialariek badakite Karibe inguruan sortu eta Atlantikoa zeharkatzen dutela Europako errekek kolonizatzeke. Heldutasunean, berriz, kontrako bidea egiten dute. Baina oraindik misterioa da Sargazoen itsas hondan gertatzen dena, ez baita irudiekin dokumentatu zehazki non eta nola den ernaltzea eta errutea, sakonera handian gertatzen baita. Nola dakite, orduan, Karibe aldeko Sargazoen itsasoan jaiotzen direla? Larben jarraipena eginez. Johannes Schmidt biologo danimarkarrak hartu zuen lana, XX. mendearen hasieran. Itsasoz, Atlantikoaren hegoaldeko iparralde-rantz zetozen larbak aztertu zituen, eta ohartu zen zenbat eta hegoalderago orduan eta txikiagoak zirela. Txikienak, zentimetro ingurukoak, Sargazoen itsasoan aurkitu zituen. Larbak angula bihurtuko dira Atlantikoa zeharkatzerako —bi urte eta erdiko bidaia—, eta behin itsasadarretan sartzen direnean itxuraldatzen hasiko dira, aingira bihurtu arte. Heldutasunera iristea lortzen badute...

Espeziea arriskuan

“Aingiraren etorkizuna arriskuan dago. Europa osoko datuak aztertuta, garbi ikusten da espeziea gainbehera doala. Arrantzaleek diote zikloak direla, izaten direla urte bolada onak eta txarrak. Hori hala da, baina joera beheranzkoa da, dudarik gabe”. Gainbehera azaltzeko ez dago arrazoi bakarra. Arrazoi multzoa zerrendatu du Esti Diazek: “Gehiegizko arrantza, habitata suntsitzea, errekan gora egiteko oztopoak, kutsadura, harrapakariak...”. Arazo konplexua da. Baina zerrenda horretatik bi arazo nabarmendu ditu: “Alde batetik, hainbat hamarkadatan egin den gehiegizko arrantza. Datu zehatzik ez daukagu, baina 2003ra arte ez da inolako kontrolik egin eta



GORRA ZABALETA

AZTI TECNALIAKO IKERLARIAK

Aizkorri Aranburu eta Esti Diaz arduratzen dira angularen ikerketaz.

neurririk gabe arrantzatu da; bestea, habitata suntsitzea, eta, bereziki, erreketan eraikitako oztopoak: presak, urtegiak... Aingirari gero eta leku gutxiago utzi diogu eta horrek eragin zuzena du haren garapenean. Herri asko eraikitzeke hezegu-neak suntsitu dira; erreka bazter naturalak galdu dira”.

Espeziearen gainbeheraz ohartuta, Europar Batasunak neurriak eskatu dizkie aingirak kolonizatutako herrialde guztiei. “Aingirak aurrera egingo badu, denok hartu behar ditugu neurriak, bestela alferrik izango da. Oraingoz, herrialde bakoitzak bere irizpideak ezarri ditu. Europa iparraldeko zenbait herrialdetan arrantza erabat debekatu da, han arazoa

larriagoa delako”.

Eusko Jaurlaritzak 2003an ezarri zuen angularen gaineko kudeaketa plana. “Hainbat neurri proposatzen dira. Arrantzari dagokionez, aingiraren arrantza debekatu da, eta angularena arautu. Horrez gain, errekek birpopulatzeko ekimenak jarri dira martxan, Urolakoa, esate baterako”. Habitata berreskuratzeko eta erreketako oztopoak murrizteko neurriak ere proposatu dituzte, baina zailagoa da hor eragitea. “Urolan, adibidez, presak, zentral hidroelektrikoak eta urtegiak dau-de. Batzuk kultur ondare daude kontsideratuta; beste batzuk oraindik erabiltzen dira eta ustiatze eskubideak daude; jabe pribatuak ere badaude tartean... Interes asko gurtzatzen dira. Guk aingirari begiratzen diogu eta neurriak proposatzen ditugu, baina gero politikoei erabaki behar dute. Eta, gainera, neurri garestiak dira eta gaur egun ez dago dirurik. Baina aipatutako arazo guztiei jarri behar zaie konponbidea. Soilik arrantza debekatuta ez da angula berreskuratuko”.

Neurri globalak

“Neurriak maila globalean hartu behar dira. Europar Batasunak eman ditu pausoak, baina, adibidez, Afrika iparraldean ez dago inolako araurik”. Hutsunea baliatu dute, hain zuzen ere, Euskal Herriko hainbat enpresak, Mauritania, Mendebaldeko Saharan edota Marokon arrantzatutako angula saltzeko. “Aurten, estreinakoz, Europako eta Afrika iparraldeko herrialdeak batzartuko dira gaia aztertzeke”.

Gainbeheraren datuak

Aingiraren inguruko ikerketa zientifikoak nahikoa berriak dira gure artean. Aingira kopuruaren segimendu historikoa falta da —duela urte gutxi hasi dira neurketa zientifikoak egiten—, eta arrantzatutako kopuruetan oinarritzea beste aukerarik ez dago alderaketak egin ahal izateko. Eta hor ere arazoak sortzen dira, harrapaketa gaineko kontrola 2003an hasi baitzen Gipuzkoan eta Bizkaian. Beraz, Asturias edo Galiziako datuak erabili behar izan dira denboran atzera egin ahal izateko.

Asturiasko San Juan de la Arenako kofradiak eskaintzen du serie historiko luzeena. 1952tik 1972ra, urtean 10.000 eta 20.000 angula kilo arteko harrapaketak daude erregistratuta. 1972tik 1978ra gora egiten du, 80.000 kilo ingururen bueltan; eta hortik aurrera gainbehera jarraia da —urtetik urterako gorabeherekin— eta gaur egun mila kilo inguru erregistratzen ditu. Joera berbera ikusten da Miño (Galizia) eta Albuferrak (Valentzia) datuetan.

Europari dagokionez, iparraldeko herrialdeetan 1950eko hamarkadan hasi ziren aingiraren gainbeheraz kezkatzen. Euskal Herrian 1980ko hamarkadatik aurrera areagotu da kezka. Bizkaiko eta Gipuzkoako datuak 2003tik aurrerakoak dira. Urtetik urtera gorabeherak dauden arren, mila kilo inguru harrapatzen dira, batezbeste. Urolari dagokionez, 100 eta 150 kiloren bueltan dabilta sasoi bakoitzeko harrapaketak, sasoi batetik bestera gorabeherak dauden arren. Datu hauek angulazaleek denboraldi amaieran aurkezten dituzten harrapaketa koadernoetan oinarritzen dira. Joerari dagokionez, azken hamarkadan kopuruak mantendu egin direla esan daiteke.

Angula bakoitza mila euroan

Europar baino askoz lehenago ezagutu dute Japonian aingiraren gainbehera. Han, munduko bazter gehienetan bezala —salbuespena da Euskal Herria—, aingirak interesatzen zaizkie jateko. Europako angula gehienak, esate baterako, txinatarrek erosten dituzte, ondoren haztegiatan loditzeko. Japoniako aingiraren gaineko presio gehiegizkoak espeziea desagertzeko ekarri du ia. Arazoari aurre egiteko, aingiraren ziklo osoa laborategian osatzeko ikertzeari ekin zioten duela 70 urte. Duela pare bat urte lortu dute, baina oraingoz produkzio kostuak ikaragarriak dira: mila euro behar dira angula bat ekoizteko. Kostuak murriztu eta angula bakoitza euro batean ateratzea da hurrengo erronka. Angula kiloak jateko garesti (kilo bakoitzeko 3.000 angula kalkulatu da), baina loditzeko eta aingira bihurtzeko direnez, hor egon daiteke etekina.

Urolan 98 presa edo oztopo daude

Gehiegizko arrantzarekin batera, zientzialarien ustez habitataren deusezte eta ibaian gora eraikitako presak eta beste-lako oztopoak dira aingiraren gainbehera azaltzeko arrazoi nagusiak. Urola ibaian, esate baterako, 98 presa edo oztopo daude. Gipuzkoako Foru Aldundiak sailkatuta dauzka neurriaren eta zailtasunaren arabera. Hamar metrotik gorako lau oztopo daude. Arrainentzako pasabideak, berriz, hama-bi. 98 oztopo horietatik (presak, urtegiak, zentral hidroelektrikoak...) gaur egun 34 erabiltzen dira; gainontzekoak utzita daude.



AZITECNALIA

SARGAZOETAKO HARRIBITXIA

Ozeano sakonetik errekara, eta errekatik berriro itsasora. Horixe da aingiraren bizitza. Karibe aldean dagoen Sargazoetako itsasoan jaiotzen da, itsas hondooan, ur sakonetan. Hondotik ur zutabera igotzen denean, zentimetro eskaseko larba da. Oraindik ez du igeri egiteko ahalmenik, baina hosto forma dauka –leptocefaloa da– korrontearen indarrakz baliatzeko. Horrela, Sargazoetatik Ipar Atlantikorantz doan itsas korronte nagusian murgilduko da, bi urte eta erdiz 5.000 kilometroko itsas zeharkaldia egiteko.

Ozeano Atlantikoaren bestalderaino iristerako ia bost zentimetroko angula bilakatu da. Planktona jaten du. Lehenik, Afrika iparraldeko kostaldeetara iritsiko da. Bizitzeko leku egokirik aurkitzen ez badu, iparralderantz jarraituko du. Mauritaniatik Norvegiarainoko itsasadarrak eta errekak kolonizatzen joera du.

Itsasadarretara iristen direnean, marea bizien eta itsas korronteen laguntzarekin sartuko da erriora. Ilargiak ere zeresan handia du angularen portaeran. Argia ez du batere gogoko –fotofoboak da–, eta ilargi berriaren zain egongo da mugitzeko. Horrez gain, euriteek eragindako ur uherra aurkitzen badu, orduan bai baldintza onak harrapakariengandik ezkutatzen. Behin itsasadarraren barrualdean, bertan bizitzeko babeslekua eta jatekoa aurkitzen baditu, han osatuko du heldutasunerako zikloa. Azken finean, itsasadarrean baino jateko gehiago ez du inon aurkituko. Baina lekurik ez badu, orduan errekan gora egingo du, bere espazioa aurkitu arte.

Behin bere lekua hartu duenean, eraldatzen hasiko da. Lehen aldaketa azalean gertatzen zaio. Errioko ur gezan murgildu bezain pronto azal gardenean



pinportak agertuko zaizkio; aurrena buru aldean, ondoren marrak gorputz osoan; erabat belztu arte. Pixkanaka gorputza luzatu eta loditu egingo zaio, angula izaten da 10 cm arte eta hortik aurrera aingira. Anguloia izango da aurrena, aingira horia ondoren, eta aingira zilarkara erabateko heldutasunera iristean –zilar kolorekoa du sabela–. Zenbat eta iparralderago, orduan eta urte gehiago behar izaten dute zikloa osatzeko: gure errioretan zortzi edo hamar urte behar dituzte; Europa iparraldean hogei.

Aingira zilarkarak azken itxuraldaketa egingo du bidaiari ekiteko. Gorputzean nahikoa gantz pilatu duenean, gorputzeko zuloak estaliko ditu; ez da gehiago elikatuko; begiak ere atrofiatu egingo zaizkio: itsaso sakonean ez du haien premiarik. Udazkenean abiatu eta sei hilabeteen Sargazoetako jaiolekura itzuliko da. Han, sakoneko ilunak gordetako itsas hondooan, arrautzak errungo ditu emeak, arrak ernal ditzan. Hala jaioko dira ozeanoaren bestalderantz abiatuko dira harribitxiak.



AINGIRAREN BILAKAERA

1. Sargazoaren itsasoa; 2. aingiraren larba; 3. anguloia; 4. aingira horia; 5. aingira zilarkara.



Bitxikeriak

ANAIA AMERIKARRA

Sargazoetako itsasoan aingira amerikarra ere jaiotzen da. Bitxia da, bi espezieak leku berean jaiotzen direlarik, batzuek Ipar Ameriketarantz jotzen dute, bide askoz motzagoa eginez, eta besteek Atlantikoaren bestalderantz. Pentsatzen da banaketa bi kontinenteen arteko urruntzeak eragin duela. Duela milioika urte, askoz gertuago zeuden Europa eta Amerika. Orduan alde handirik ez zegoen batera edo bestera joan, baina Europa aukeratu zutenei urtero zentimetro batzuk luzatu zaie bidaia. Gaur egun 5.000 kilometroko zeharkaldia egiten dute. Hain bidaia luzea egiten duen aingira espezie bakarra da europarra, besteek (amerikarra, japoniarra...) kostaldetik nahikoa gertu erruten baitituzte arrautzak.

ITSASOAN ERE BIZI DAITEZKE

Angularen joera erreka bilatzea bada ere, Baltikoan aurkitu dituzte bizitza ziklo osoa itsasoan osatu duten aingirak. Buruko hezurtxo batzuk aztertu dituzte (otolitoak). Arrainaren edadea neurtzeko erabili ohi izan dira, arbolek bezala, hezur hauek ere eraztunak sortzen dituztelako bizitako urte bakoitzeko. Bada, otolitoetan kaltzioa agertuz gero, arraina erreka ur gezan ibili den seinale. Estrontzioa bakarrik agertzen bada, orduan itsasoko arraina. Aingira haietan estrontzioa bakarrik aurkitu zuten.

ATZERA EGIN DEZAKE ITXURALDAKETAN

Aingira heldutasunera iritsi eta bidaiatzeko prest dagoenean aingira zilarkara bihurtzen da. Jateko gaitasuna gal-

tzen du eta begiak atrofiatu egiten zaizkio, besteak beste. Bada, bideari ekin eta errekan behera gaingitu ezineko oztopo bat aurkitzen badu (adibidez, urtegi bat), aingira gai da bere zikloan atzera egin eta berriro aingira bihurtzeko. Zilar kolorea galduko du, jateko gaitasuna berreskuratu, begiak sendotu... Hurrengo urtean berriro itxuraldatuko da, bideari ekiteko.

AR EDO EME, DENTSITATEAREN ARABERA

Angularak sexua definitu gabe izaten du. Aingira bihurtzean erabakitzen da ar edo eme. Angula asko dagoen lekuan, arrak izango dira gehienak. Gutxi dauden tokian, berriaz, emeak.

Errekan gora joan ahala, ale gutxiago daudenez, emeak agertzen dira, batik bat. Naturaren legea da: espeziearen iraupena ziurtatzeko garrantzitsuagoak dira emeak. Arriskua: ur jauzi, urtegi eta bestelako lanekin erabat oztopatu zaie errekan gorako bidea, eta ale gehienak itsasadarretan pilatzen dira; ondorioa: ar asko eta eme gutxi. Naturaren oreka hautsi egiten da.

LEHORREAN ARNAS HARTZEKO GAI

Aingirak badu lehorretik ibiltzeko eta oztopoak erreka bazterretik gaingitzeko gaitasuna. Sugeen modura, horman gora igotzeko abilezia dute. Muki sendo baten inguratzen die azala eta itsasteko ahalmena ematen die. Gainera, brankietatik arnas hartzeaz gain, uretatik kanpo daudenean azalaren bidez arnas hartzeko gai dira.

UROLA AINGIRA UGALTZEKO SAIOA

Aingira berreskuratzeko kudeaketa planaren barruan, Urola ibaian aingira ugaltzeko ekimena jarri du martxan Eusko Jaurlaritzak Azti-Tecnaliaren eskutik, angulazaleekin elkarlanean.

Urtarrilaren 11. Ezohiko mugimendua dago Igaraberri baserriaren inguruan. Hamaika kotxe, kazetari, kamera eta argazkilari bildu dira zubiaren inguruan. Azkoitia eta Zumarraga artean dago Igaraberri, Urola ibaiaren ondoan. Ez alferrik. Garai batean errota izan zen. Etxeko nagusia gerturatu da, jakin-minak zirikatuta. “Atzo gauean bi kilo angula harrapatu genuen Zumaian eta hona ekarri ditugu, hemen hazi daitezzen”, azaldu dio Aizkorri Aranburu biologoak. “Angulak? Gogoan daukat, txikiak ginela hemen izaten zen nahikoa aingira. Baina gero Orbegozi hasi zen lanean Zumarragan eta ibaia erabat hondatu zuen. Ordutik geroztik ez dago aingirarik”.


Azkoitiraino iristen da gaur egun aingira Urola ibaian. Aizpurutxotik gorako eremuak ere koloniza ditzan nahi dute biologoek, eta horretarako itsasadarreko angulak han goian askatzea erabaki dute. Bezperan, urtarrilaren 10ean, Zumaiaiko angulazaleek harrapatutakoak dira. Aurrerantzean segimendua egingo zaie, Ekolur enpresaren laguntzarekin. Zortzi bat urte beharko dituzte aingira heldu bihurtu eta itsasorantz abiatzeko. “Ez dakigu zer emaitza emango duen, baina gaur egun aingirari lagundu egin behar zaio errekan gora egingo badu, oztopo ugari baititu bidean”, azaldu du Azti-Tecnaliako biologo Esti Diazek.



Bidea



ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA



“HARRITXIKIA ETA HONDARRA DITU GUSTUKO ANGULAK; ORAIN **BASA** BAINO EZ DAGO”

Neguko gau hotz eta euritsuetan errioan gora eta behera ibiltzen dira dozena bat txalupa, angula preziatua arrantzatu nahian.

Urolan 22 lizentzia daude gaur egun, eta izendunak dira: lizentziaren jabeak baja emanez gero, galdu egiten da, ezin du beste inork hartu. Legeak beste muga batzuk ere ezartzen ditu: gehienez bi kilo har daitezke lizentzia eta eguneko; arrantza sasoia mugatuta dago, urriko hilberria baino astebete lehenago hasi eta martxoko hilberritik astebete pasa arte; harrapatutakoaren berri eman behar da koaderno batean; 65 euro ordaindu behar dira ontzitik arrantzatzeko, 15 euro lehorretik eginez gero; salmenta debekaturik dago... “Legeak nola jartzen ari diren ikusita, lehenago desagertuko da angulazalea angula baino”, diote angulazaleek.

Jose Ramon Elosua lehorretik ibili izan da angula arrantzatzen, baina duela urte batzuk utzi egin zion. “Lehen koadrilan ibiltzen ginen. Kaia tabernako aterpean karta jokoan hasi eta galtzen zuenak salabardoari pasaldia eman behar izaten zion”.

Juan Ramon Larrañaga, berriz, motorarekin ibiltzen da gaur egun. “Gaztetan lehorretik ibiltzen ginen. 1996tik daukagu motora, eta gaur egun, lizentziak baterako edo besterako direnez, ontzitik ibiltzen gara”.

Noiz agertzen da angula erriogan?

Irailean, San Migeletako marea bizietan, errioko harri txikietan begiratzu gero, han agertzen da angula berria. Handik aurrera, udazkenean eta neguan sartzen da gehien, baina nik uste dut urte osoan etortzen dela, gehiago edo gutxiago. Ilargi berria baino astebete lehenago hasten gara arrantzan, erriorearen sarreran, Talaie parean. Ilargi betean ez da alerik agertzen, iluntasuna nahi du angulak. Itsas korronteek ere eragina dute. Frantzia aldera badago, orduan sartu egiten da. Bestaldera badago, orduan ezer ez. Korrontea erabiltzen du sartzeko.

“Lehenago desagertuko da angulazalea angula baino”

Behin erriora sartzen direnean, nola bizi dira?

Erriogan zehar zabaltzen da, gordeleku bila. Altxerria (harri txikia) eta hondarra ditu gustuko ezkutatzeko, leku garbiak; gaur egun basa baino ez dago errio hondoan eta hori ez da batere egokia angularentzat. Basetan ere sartzen dira, zuloa eginda, baina angulak nahiago du leku garbia.

Noiz ateratzen da angula gordelekutik?

Angula normalean gordeta egoten da, beretzat egokiak diren baldintzen zain. Ilargi berria nahi izaten du, ilunpean harrapakariengandik ihes egiteko. Eta ujalak izaten direnean ere mugitzen da. Oxigeno faltagatik edo ujalak berak eragindako ezinegonagatik, jaiki egiten dira, uretan gora etortzen dira, eta orduan harrapatzen ditugu.

Angulak harrapatzeko batzuk lehorretik ibiltzen zarete, beste batzuk ontzitik. Nola da kontua?

Lehen jende asko ibiltzen zen lehorretik, errio bazterrean, salabardoarekin. Lekua hartzeko ere borrokak izaten ziren... Baina duela 15 bat urtetik hona asko galdu da lehorrekia. Lehen Gurutze Gorrian soldadu zeudenek asko harrapatzen zuten Zubixikiaren parean; leku ona zen hura. Kontua da, ujalak daudenean angula errio bazterrean etortzen dela, korrontea saihesteko. Horrelakoetan lehorretik harrapatzen da.

Eta ontzitik, hondotik edo azaletik egin daiteke arrantza. Zer berezitasun du bakoitzak?

Hondotik ibiltzeko bahe borobil zabalak erabiltzen dira, kirten luzedunak. Bahea hondoraino sartzen da. Batzuek sistema hidraulikoa jarri dute motoran, baheak errazago altxatzeko. Baina angulazale gehienak azaletik ibiltzen dira; bahea txikiagoa da, errektangularra. Pasaldia ur azalean egiten da, askoz arinago, sartu eta atera, etengabe, bahe bat ababorrean eta bestea istriborrean. Angula dagoenean, horixe da teknikarik eraginkorrena, azkarrena delako.

Eta nola dakizue angula hondotik edo azaletik ibiliko den?

Angulak bere joerak dauzka. Adibidez, itsasotik sartzen ari denean, ur garbitan, hondotik joango da; alferrik saiaturako zara azaletik. Gero, ura mehetzen doan neurrian, orduan azalera agertuko da. Adibidez, Barinagako parean. Han urak goranzko zurrunbiloa egiten du eta angula gora ekartzen du. Han ez dago bahe handiarekin ibiltzerik. Errioga ezagutu behar da.

Leku batzuk egokiagoak dira hondotik ibiltzeko, beste batzuk azaletik.

Arrantza saioa itsasbeherarekin hasten duzue, erriorearen sarreran. Noraino igotzen zarete?

Talaie parean hasi eta, angula mugitzen bada, pixkanaka gorantz egiten dugu, haren bila. Barinaga paretik gora ere joaten gara, normalean Beduaraino. Handik gora ere ibiltzen ziren

lehen, Oikiako presaraino. Baina ur mehea dago, metro beteko sakonera. Marea bizi ona behar da han gora azaltzeko, eta errioga ondo ezagutu behar da.

Eta hondartza aldean?

Santiagoko hondartzan ere egiten da. Lehorretik sartzen dira batzuk. Gu ontzitik ibili izan gara. Angula asko sartzen denean han ere egoten da. Baina arriskutsua da, olatuengatik. Ilunpean ez duzu ikusten olatua badatorren, nola datorren...

Lehen angula asko omen zegoen, kiloka harrapatzen omen zen. Gaur egun, berriz, galzorian omen dago.

Larrañaga: Hori bolo-bolo dabilen kontua da, baina lehen bezala dago angula gaur egun ere. Azken zortzi urteotan nik ez dut gainbeherarik sumatu. Serio ibiliz gero, denboraldian hogeikilotik gora jaso daitezke. Eta gaur egun bezala, lehen ere izaten ziren urte txarrak. Nire iritziz, zikloak dira. Gure aitona ibili zen Hotel Amayarako angula kiloa osatu ezinik Osabak kontatzen duenez, zenbait urtetan alerik ere ez zuten biltzen. Gau hotzetan, angulen ordeztu, errio bazterrean hotzez jota zeuden hegaberak harrapatzen omen zituzten.

Elosua: Nik uste dut jaitsita dagoela. Lehen lehorretik hiruzpalau kilo harrapatzen ziren salabardoarekin; orain lanak izaten dira hiruzpalau lagunaren artean kilo erdia osatzeko.

Angulazaleak kexatzen dira ubarroiek jaten dituztela aingirak.

Garbi dago hegazti hori berria dela hemen eta ikaragarri ugaltu dela. Gogoan daukat behin *Arritokieta* ontziko lema galdu genuela erriogan, Zubixikiaren parean. Orduan inor ez zen urpera sartzen, errioga oso zikina zegoelako. Sei edo zazpi urte izango nituen. Ur azpira sartu lema bila eta ez nuen ezer ikusten hondoan hamar zentimetroa nuen arte. Hondoko basa zuloz josita zegoen, eta zulo bakoitzean aingiraren burua edo hamarra. Dena beteta. Orain ez da ezer ikusten, ez zuloak, ez animaliarik.